

EDARIEN ETA ELIKAGAIEN SALMENTA AUTOMATIKORAKO MAKINEN INSTALAZIOA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA OSAGARRIA

ZIOEN AGERPENA

Urte batzuetatik hona, aurrerapen teknologikoaren eta jarduera komertzial berriak ezartzearen ondorioz, elikagaiak eta edariak saltzeko metodo zuzena eta automatikoa ari da finkatzen. Horretarako, titulartasun pribatua duten tokietan, makina saltzaileak jartzen dituzte kontsumitzaileen eskura. Ateen, leihoen edota beste edozein zuloren bidez, bide publikoetatik zuzenean irits daiteke makinara, eta duen automatismoari esker, ez du jarduera arduradunaren inolako kontrolik edota ikuskapenik behar.

Makinak ezartzeko prozesua apurka-apurka gertatu da. Makina horien jarduera ez da ohikoa izan orain artean, eta ondorioz araudi berezirik ez dute izan, ez oro har, ez udalerrri gehienen mailan.

Baina esperientziak horrelako jarduerak arautzeko beharra sortu du, gehienez nahasteak, arriskuak eta eragozpenak jarduera horiei lotuta izaten direlako; hala nola, gaueko funtzionamenduaren ondorioz sortutako eragozpenak eta zaratak. Horri botellón izenez ezagutzen den fenomeno gehitu behar zaio; hori dela-eta, hainbat pertsona talde biltzen dira makinan inguruan, eta auzokoen atsedena eragozten dute. Hala, salmenta jarduera horrek ostalaritzarekin duen parekotasuna ikusita, azken horien ordutegiaren gainean ezarritako araudia eta mugak zabaltzea beharrezkoa da. Gainera, kontrolatu gabeko eta gustukoak ez diren aisialdirako lekuak sortuko dituzten salmenta makinak pilatzea saihestuko da. Jarduera komertzialei buruzko Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 16ko 7/1994 Legeak, 29. artikuluan egiten duen gomendioari jarraitze aldera, era horretako jarduerak eta beste ekipamendu komertzialak bateratzeko eta harmonizatzeko irizpide orokorrak zein baldintzak ezartzea komeni da.

Bestalde, lokalen kanpoaldetik erabil daitezkeen salmenta makinentzako beharrezkoa da ordenantzaren aplikazio-eremua mugatzea; izan ere, establezimendu publikoen barrualdean edota leku itxietan kokatutakoek ez dute horrelako arazorik sortzen, eta azken horien instalazio eta funtzionamendu erregimena ipinita dauden tokiaren arabera arautu daiteke.

Azkenik, segurtasuna bermatu nahi bada, makinek eta instalazioek, homologazio eta akreditazio guztiak edukitzeaz gain, mekanismo eta tresna teknikoak izateko ezinbesteko beharra dute. Are behar handiagoa, orain dela gutxi herri batean sortutako sutea kontuan hartuta. Itxura denez, beheko solairuan zegoen salmenta makina batean sortu zen sua.

Horrek guztiak jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsu baten aurrean gaudela baieztatzen du. Azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak dioena errespetatuz, ordenantza honen bidez makina horien kokapena, kopurua eta euren artean eduki beharreko distantzia arautuko dira, aipatutako Dekretuko seigarren artikulua dioen bezala.

I. TITULUA

XEDAPEN NAGUSIAK

1. artikulua. Objektua.

1. Araudi honetan agertzen den erregulazioak honako hau du objektutzat: Era guztietako edari (alkohola duten edarien salmenta automatikoa espresuki debekatuta dago) zein elikagai makinan edota tresnen instalazioa eta funtzionamendua., lokalen edota bulegoen kanpoaldetik zuzenean erabil daitezkeenak, udalerrri barruan.

2. Xedapen Gehigarrietan espresuki zehazturikoan izan ezik, ez zaie ordenantza hau aplikatuko salmenta automatikoko makinei edo gailuei, baldin eta beste jarduera batera zuzendutako lokalen edota bulegoen barrualdean badaude.

2. artikulua. Aplikatu beharreko araudia.

Tolosako Udalerrian dauden salmenta makinan instalazioak eta funtzionamenduak bete beharreko arauak dira ordenantza honetan zehaztutakoak. Horiez gain, ondorengo betebeharrak ere badituzte:

a) Lurzoruaren klasifikazioaren (urbanoa, urbanizagarria eta ez urbanizagarria) eta kalifikazioaren arabera, (zonabanatze orokorrekarekin eta xehatuarekin bat datorren erabileraren erregimena eta eraikuntzako tipologia) ordenazio orokorreko eta zehetuko tresnek ezartzen dutena.

b) Ezarri nahi diren establezimendu eta jarduerak ukitzen dituzten arau sektorial eta espezifikoak, arlo desberdinetan (segurtasuna, osasuna, ingurumena, arkitektura, industria, turismoa, nekazaritza, etab.) eskumena duten administrazioek izaera

orokorrekin xedatuak.

3. artikulua. Baimenen erregimena.

1. Ordenantza honen helburu diren makinak eta gailuak instalatu eta funtzionamenduan jarri aurretik jarduera lizentzia eskuratu behar da, kontuan hartuta Jarduera Gogaikarrien, Osasungaitzen, Kaltegarrien eta Arriskutsuen Erregelamendua eta aplikatu daitezkeen beste arauak.

II. TITULUA

INSTALAZIOEN ETA ESTABLEZIMENDUEN BALDINTZA TEKNIKOAK

4. artikulua. Establezimenduen betebeharrak.

1. Makinak instalatzen dituzten lokaletan edota bulegoetan zaraten eta bibrazioen aurkako isolamendu gordina eduki behar dute. Hala, lokalen eta bulegoen zarata eta bibrazio maila ostalaritzako eta jolas-jardueren establezimenduen instalazioa, irekiera eta funtzionamendua arautzen dituen udal-ordenantzaren arau osagarriko eranskinean zehaztutako maila baino handiagoa bada, lokal eta bulego horiek ateratzen duten zarata saihestuko da, bai kanpoaldera, bai barrualdera

2. Makinaren itxiturek eta babes sistemek kontsumitzaileek makina mugitzean, bultzatzean edota bertatik produktua hartzekoan zarata gogaikarriki ateratzea eragotzi behar dute.

2.1. Instalatutako pertsonen itxiak izan behar dute, eta lama zurrunkak eduki behar dituzte. Era berean, behin ordutegia betetakoan, itxiera automatikoa (tenporizatua) duen sistema ezarri beharko da. Sistema horrek zulo guztiak estali behar ditu eta makinak ez dira agerian gelditu behar.

3. Salmenta makinaren ondoan edota makinari erantsita, makinak emandako produktuen bilgarriak, hondarrak eta gainerako hondakinak jasotzeko behar adinako edukierako ontzi bat jarri behar da. Jarduera horrek ingurua zikin ez dezan, makinaren jabeak hartu beharko du bere gain ontzi hori erretiratzeko eta garbitzeko ardura.

4. Makina bakoitzaren instalazio elektrikoak babeserako neurri propioak izan beharko ditu (diferentziala, etengailu magnetotermikoa, lur-konexioa, indarrean dagoen araudia betez).

5. Sua antzemateko sistema eta alarma eduki behar ditu.

5. artikulua. Makinak bete beharrekoak.

1. Instalatutako makinak beharrezkoak diren homologazio eta administrazio-baimen guztiak eduki behar ditu.

2. Makinaren ageriko lekuren batean honako datuek egon behar dute:

a) Administrazioaren homologazioa.

b) Matxura edota erreklamazio kasuetarako, saltzailearen identifikazioa eta helbidea.

c) Funtzionamenduaren baldintzen eta produktuen edota zerbitzuen deskribapena.

3. Merkantziarik ez dagoen edota makinak gaizki funtzionatzen duen kasuetarako, dirua itzultzeko sistema eduki behar dute.

4. Indarrean dagoen araudiak dioen moduan etiketatu eta ontziratatu behar dira elikagaiak.

5. Musikaririk edota soinuan oinarritutako erakargaririk ez da onartuko.

6. Takoak edota bibrazioaren aurkako sistema eduki behar ditu makinak.

7. Irigarritasuna Sustatzeko Legea bete beharko dute. Horretarako, botoiak, dirua edota txartelak sartzeko zuloak eta produktua jasotzeko lekua altuera egokian jarriko dira. Gainera, baldintza hauek bete beharko ditu:

7.1. Aparkalekuko txartelak ematen dituzten makinetan izan ezik, ikusteko arazoak dituzten pertsonen ere erabili ahal izateko, jarraibideak Braille Sisteman, altuerliebean eta karaktere handiekin jarriko dira. Makinek entzunezko informazioa ematen duen sistema edukitzea ere gomendatzen da.

7.2.0,90 eta 1,20 metro arteko altueran egon beharko dira dialak eta diru-zorroak.

7.3.Mugitzeko edota manipulatzeko arazoak dituzten pertsonak ere txartelak eta saltzen diren produktuak hartu ahal izango dituzte. Horretarako 0,70 metroko altueran jarriko dira.

6. artikulua.Erantzukizun zibileko aseguruua.

Jarduerak behar bezalako erantzukizun zibileko aseguruua eduki behar du. Gutxienez 30.000 euroko estaldura izango du eta 3 makinako taldea aseguratu du gehienez ere.

III. TITULUA

DISTANTZIA ERREGIMENA ETA JARDUERARAKO ORDUTEGIA

7. artikulua.Distantzia erregimena.

1.Oro har, hiru makina baino gehiago multzoka instalatzea ez da onartuko. Hala eta guztiz ere, egoera, inguru komertzialaren baldintzak eta auzokoengan izango duen eragina kontuan hartuta, makina kopuru handiagoaren multzokako instalazioa baimen daiteke. Halere, salbuespen egoera horietan zortzi makina baino gehiago ezingo dira ezarri.

2.Salmenta makina berri baten edota makina multzo baten instalazioa ez da baimenduko, baldin eta makina kokatzeko tokiaren eta salmenta makinaren edo makina multzoaren edo I. taldeko establezimenduaren artean 150 metro baino gehiagoko distantziarik gelditzen ez bada. Tarte oinezko bide motzena eginda kalkulatu da.

8. artikulua.Ordutegiaren erregimena.

1.Ordenantza honetako salmenta automatikoko establezimenduek ordenantza honetan adierazitako ordutegia bete behar dute.

2.Jarduera ez da goizeko 8ak baino lehenago hasiko, ezta 22ak baino beranduago amaituko ere.

IV. TITULUA

ZIGORTZEKO ARAUBIDEA

9. artikulua.Zigorrak.

Ostalaritzako eta jolas-jardueren establezimenduen instalazioa, irekiera eta funtzionamendua arautzen duen Ordenantzaren zigortzeko araubideko 16. artikuluan menpean daude jarduera hauek. Artikulu hori erabat aplikatuko zaie. Dena dela, horrek ez ditu salbuetsiko Jarduera Komertzialen Legeko, Ikuskizun Publikoen eta Jolas-Jardueren Legeko edota aplikatu daitezkeen beste araudietako erregulazio orokorrean dauden zigorretatik.

V. TITULUA

JARDUERA AMAITZEA

10. artikulua.Jarduera amaitzea.

Ondorengo zerrendako zirkunstantziaren bat gertatzean, jarduera edo lizentzia amaitutzat joko da:

a)Titularrak jarduera behin betiko uzteko gogoia jakinaraztea Udalari.

b)Sei hilabete natural baino gehiago jarduera itxita edukitzea edota ez ematea, funtsezko arrazoirik gabe.

c)Zigortzeko ebazpen irmo baten bidez ixtea erabakitzea.

XEDAPEN GEHIGARRIA

1.Ordenantza honetako 1.2. artikuluan aurreikusten diren salmenta makinei 4. artikuluko 1., 3., 4. eta 5. paragrafoak eta 5. eta 6. artikuluko aplikatuko zaizkie.

2.Makina horien jarduerari buruzko lizentzia jarduera nagusirako eskatzen denarekin batera eska daiteke, baita modu

independentean ere.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Ordenantza honen helburu izan eta indarrean sartu aurretik baimendutako jarduerak ordenantza honetako 4. artikuluan aurreikusten diren baldintza teknikoak bete behar dituzte. Horretarako, indarrean sartu den unetik sei hilabeteko epea emango zaie.

Bigarrena. 8. artikuluan aurreikusitako ordutegiaren erregimena eta 9. artikuluan ageri den zigortzeko erregimena jarduera guztietan aplikatuko dira, baita Ordenantza hau indarrean sartu aurretik baimenduta zeudenetan ere.

Hirugarrena. Jarduera berria izango balitz bezala, aurreko jarduera bateko lizentzia transmisioen edota baimendutako establezimendu bateko makina berrien instalazioen kasuan, titularrak ordenantza honetan jasotakoa bete beharko du.
